


CROSSCALLTM
OUTDOOR MOBILE TECHNOLOGY



CORE-M4

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



AURKIBIDEA

CORE-M4 TERMINALAREN ONENA

Urperagarria 4
 Hauskaitza 4
 Iraunkorra..... 4
 Osagarriak..... 5
 MIL-STD-810G ziurtagiria 5

TELEFONOARI BURUZ

Ezaugarri teknikoak 6

LEHEN URRATSAK

SIM txartela instalatzea..... 7
 Mugikorra itzaltzea eta piztea 7-8

CORE-M4 TERMINALAREN INDARGUNEAK

X-LINK™ 8
 X-BLOCKER finkapen-sistema..... 8
 X-SENSORS aplikazioa..... 9
 Tekla programagarriak..... 9
 X-SAFE..... 9-13

CORE-M4 ur azpian erabiltzeko jarraibideak 13
 Touch-lock funtzioa 13
 Aholkua: uretan sartu ondoren..... 13

CORE-M4 terminalari etekinik handiena ateratzeko iradokizunak..... 13
 Klik bakarrekin kendu irekita dauden aplikazioak..... 13
 Erraz pasatu aplikazio batetik bestera..... 13
 Pantaila zatitzeko modua 13
 Zenbait hizkuntzaren konfigurazioa 13-14
 Erabiltzaile bat eranstea..... 14

Bateria

Bateria kargatzea 14
 Energia aurrezteko modua..... 14-15
 Bateria aurrezteko modua..... 15
 Bateria kargatzeko aholkuak eta kontuan hartu beharrekoak 15-16

TELEFONOA EZAGUTZEA

Nola erabili ukipen-pantaila 17-18
 Jakinarazpen-panela 18
 Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea 19
 Pantaila nagusia pertsonalizatzea..... 19
 Data eta ordua aldatzea 19-20
 Gailuen eta datuen kudeaketa 20

TELEFONOA ERABILTZEA

Pantaila nagusia..... 20
 Egoera-barra..... 20
 Widgetak..... 20

*Magconn Technology

Aplikazioen ikonoak.....	21
Telefonoa	21
Kontaktuak	21-22
Mezuak.....	22-23
Kamera	23
Galeria.....	23-24
Kalkulagailua.....	24
Audioa.....	24
Nabigatzailea.....	24
Posta elektronikoa.....	25
Sistemaren eguneratzeak	25

SEGURTASUN-NEURRIAK

Segurtasun orokorrari buruzko informazioa	25-27
Estankotasunari buruzko informazioa	27-28
Gailu medikoak.....	28
Bide-segurtasuna	28-29
Elikadura eta karga	29-30
Entzumenaren babesa.....	30
Ingurumenaren babesa	30
Garbiketa eta mantentze-lanak	30-31
Larrialdi-deiak.....	31
Erabiltzaileak erradiazio gutxiago jasotzeko gomendioak	31-32

INFORMAZIO OSAGARRIA

Adostasuna.....	32
Maiztasun- eta potentzia-bandak	33
Osagarriari eta softwareari buruzko informazioa	34
Absortzio espezifikokoaren tasa (SAR).....	34
Jabetza intelektuala.....	35

ERANSKINA

Informazio garrantzitsua	35
Bermea	35-36

Eskerrik asko Crosscall aukeratzeagatik eta smartphone hau erosteagatik.

Erabiltzailearen gidak gailu berria ondo ezagutzeko aukera ematen dizu.

CORE-M4 TERMINALAREN ONENA



URPERAGARRIA

IP68 babes-mailari esker, CORE-M4 terminala zurekin izan dezakezu jarduera guztietan, bai itsasoan (30 minutu baino gehiago iraun dezake ur azpian, 2 metroko sakoneran), bai mendian, euri-zaparrada gogorak botatzen dituenean (martxan jarraitzen du beti, Wet Touch teknologiako pantailari esker, ezaugarri horrek aukera ematen baitio erantzuteko, nahiz pantaila bustia egon).



HAUSKAITZA

CORE-M4 terminalak poliuretano termoplastikozko (TPU) babesa du karkasaren inguruan, eta, horri esker, hobeto jasaten ditu kolpeak. Pantailaren eta kameraren ertzetan polikarbonatoz egindako estaldurak babes ezin hobea eskaintzen du; bestalde, CORE-M4ko Gorilla® Glass 3 kristalari esker, oso ondo eusten die erorketei (Drop Test: 2 metro 6 aldetan), eta urradurekiko erresistentea da (Scratch Test: muturreko erabilera-baldintzetan).



IRAUNKORRA

3000 mAh-ko bateriak zenbait egunetako autonomia bermatzen du, zure mugikorra erabiltzeko prest izateko beti. Askok erabiltzen duzunean ere (GPSa, argazkiak, eta abar), luzeago erabili ahal izango duzu terminala kanpoan, bateriarik gabe gelditzeko beldurrik gabe. X-LINK™* konexio magnetikoko sistemari esker, kablerik erabili gabe kargatu daiteke.

*Magconn Technology



OSAGARRIAK

X-BLOCKER zirrikituak telefonoaren diseinuan bertan integratuta daude, terminala X-LINKTM* osagarriekin konektatu ahal izateko (konexio magnetikoko sistema bat da CORE-M4 terminala hainbat osagarriekin lotzeko; horietako batzuek bateria kargatzeko edo datuak transferitzeko aukera ere ematen dute). X-BLOCKER ezaugarri eskusibo bat da, smartphonea modu seguruan finkatuta dagoela bermatzen duena, erabiltzean lurrera eror ez dadin edo kolperik har ez dezan, baita egoera ezegonkorrean erabiltzen denean ere (quad, ziklo-kros, eskia, etab.). Osagarri horiek guztiek aukera berri ugari ematen dituzte.



CORE-M4 TERMINALAK MIL-STD-810G ZIURTAGIRIA DU.

MIL-STD-810G arau militarra AEBko armadak sortu zuen, aparatu elektronikoak muturreko baldintzetan erabiltzeko baldintzak erreproduzitzeko lekuan bertan. CORE-M4 terminala laborategietan probatu da, arazorik gabe erabili ahal izateko aire zabaleko ingurune gogor eta muturrekoetan. 13 proba hauek egin zaizkio: Deskonpresio azkarra, 12.192 m-ko altueratik 2.438 m-ra, 15 s baino gutxiagoan; funtzionamendu egokia tenperatura oso altu edo oso baxuetan (-25 °C/-13 °F-tik 51 °C/124 °F-ra); hauek guztiak jasateko gaitasuna: bat-bateko tenperatura-aldaketa handiak, izotza eta txingorra, gatz-lainoa, fluido ondozko kutsadura, bibrazioak, kolpeak eta azelerazio handia. CORE-M4 terminala egoera gogorrenetara egokitzen da: paraxuteko, parapenteko edo hegazkinen jauziak, muturreko kayaka, txirringarritza, quada, motoa, 4x4 eta uretako eskia, bai eta bero eta hotz handiko eta euri-jasa handiko egoeretara ere. Laborategietako lanetara eta eraikuntza-lanetara ere ondo egokitzen da.

*Magconn Technology

TELEFONOARI BURUZ


Gailuaren deskribapen orokorra



1. Bozgorailua
2. Aurreko kamera, 2 megapixelexoa
3. Bolumen-botoia +/-
4. Pizteko/itzaltzeko botoia
5. X-BLOCKER zirrikituak
6. 1. tekla programagarria
7. Mikrofonoa
8. Uhalarentzako tartea
9. C motako USB ataka
10. 2. tekla programagarria

11. SIM edo microSD txartelak sartzeko erretilua
12. Argi-sentsorea
13. Jack konektorea (estalki hermetikoa – ondo itxita egon behar du beti)
14. Kamera, 12 megapixelexoa
15. Flasha
16. X-LINK™** (datuen muntaketa/karga/transferentzia)
17. Bozgorailua
18. C motako USBa (estalki hermetikoa – ondo itxita egon behar du beti)

Nola instalatu uhal bat*




*Uhala ez dago sartuta
**Magconn Technology


LEHEN URRATSAK

SIM txartela instalatzea


1. Egiaztatu gailua itzalia dagoela. Ez badago itzalia, sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, itzaltzeko.
2. Ireki SIM txartelaren erretilua, SIM erauzteko tresna baliatuta (terminalarekin batera ematen da).
 - a. Hartu tresna.
 - b. Sartu zuloan, irudiak erakusten duen bezala, SIM txartelaren erretilua ateratzeko.



3. Atera erabat erretilua, metalezko aldea gorantz begira duela.
4. Sartu SIM txartelak
 - a. Sartu SIM txartela, beherantz begira, konpartimenturik txikienean.




- b. Nahi baduzu, sartu beste SIM txartel bat (edo 256 GB-rainoko SD txartel bat), beherantz begira, konpartimenturik handienean.



5. Sartu berriz erretilua telefonoan.
 - a. Egiaztatu txartelak behar bezala lerrokatuta daudela.
 - b. Erretilua telefonoan sartzean, egiaztatu ongi lerrokatuta dagoela zirrikituarekin.
 - c. Sartu erretilua telefonoan, segidan adierazten den bezala.

Kontuan izan: Smartphonearen estankotasuna bermatzeko, egiaztatu erretilua ondo sartuta eta blokeatuta dagoela.

MUGIKORRA ITZALTZEA ETA PIZTEA



1. Sakatu botoi hau pantaila pizteko edo blokeatzeko.
2. Sakatu luze botoi hau gailua pizteko eta itzaltzeko.
3. Sakatu batera botoi hau eta bolumen-botoia «-» pantaila-argazki bat egiteko.

Nola piztu mugikorra

Sakatu luze **pizteko/itzaltzeko** botoia, eta itxaron segundo batzuk pantaila piztu arte. Telefonoa lehen aldiz pizten duzunean edo fabrikako datuak berrezarri ondoren pizten duzunean, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.

Nola itzali mugikorra

Sakatu luze **pizteko/itzaltzeko** botoia menu gainerakorra agertu arte; gero, hautatu , gailua itzaltzeko.



CORE-M4 TERMINALAREN INDARGUNEAK



Smartphonearen atzealdeko konektore magnetiko hau X-LINK™* osagarri eksklusiboetara lotzeko eta finkatzeko erabil daiteke.

Konektorea datuak kargatzeko (1A) eta/edo transferitzeko erabil daiteke, OTG (On The Go) ezaugarriak baliatuz (osagarri bateragarriekin lotu ondoren).


X-BLOCKER

Telefonoa ondo eustea nahitaezkoa den egoeretan, CORE-M4 terminalaren osagarri eksklusibo honek modu seguruan finkatuko du telefonoa berarekin bateragarri diren osagarrietara. Erraz konektatzen da mugikorraren alboetako zirrikituen bidez. Silikonazko estaldurak kolpeek eragindako bibrazioak murrizten ditu.

Ezer egin aurretik, egiaztatu X-Blocker osagarria ondo sartuta dagoela telefonoaren zirrikituetan.

X-LINK™* eta X-BLOCKER aukerekin bateragarri diren osagarri-gama osoa ikusteko, sartu hemen:

www.crosscall.com



*Magconn Technology

X-SENSORS APLIKAZIOA

Aplikazioa (app) irekitzen duzun lehen aldian, irakurri erabilera-baldintzak eta egin klik «Ados» botoian, eta onartu aplikazioa erabiltzen hasi aurretik.

Aplikazioak mugikorrean integratutako sentsoreei buruzko informazioa ematen du.

Magnetometroa: Iparrorratzaren funtzioa betetzen du. Mugikorrak Ipar polo magnetikoarekiko duen orientazioa kalkulatu du. Kalibratu iparrorratza pantailako argibideei jarraituta.

Azelerometroa: 3 ardatzetan oinarrituz, mugikorraren azelerazioa kalkulatzek eta bistaratzeko aukera ematen du. Integrazio matematikoaren bidez, gailuaren abiadura neurtzen du, eta, aldi berean, haren kokapenaren segimendua egiten du.

GPSa: gailuaren kokapena eta GPS seinalearen zehaztasuna. Haren irismenean dauden satelite guztiak aurkitu ahal izango dituzu, eta denen kokapen zehatza ezagutuko duzu.

Hurbiltasun-sentsorea: mugikorra belarriaren ondoan jartzen denean, pantaila itzaltzen du telefono-deiak iraun bitartean.

Argi-sentsorea: mugikorraren pantailara iristen den argia neurtzen du.

Bluetooth (4.2) eta sareak (2G, 3G eta 4G): komunikazio-sareen presentzia eta ahalmena adierazten du.

Bateria: bateriaren karga-egoeraren berri ematen du berehala.

TEKLA PROGRAMAGARRIAK

Ezarpenak > Buttons > aukeran, hautatu zer funtzio eman nahi diezu tekla programagarriari. Botoi bakoitzarentzat, hautatu «Press action» eta «Press mode».

Lehenespenez, tekla grisa argazkien aplikazioa irekitzeko programatuta dago, eta tekla gorria, berriz, X-SAFE aplikazioa irekitzeko.


X-SAFE




X-SAFE aplikazioa Crosscall smartphonean integratua dago, eta, aukera ematen du norbaiti abisatzeko larrialdi-egoera batean.

1. PAUSOA: X-SAFE KONFIGURATZEA


1. Ireki X-SAFE aplikazioa



2. Konfiguratu larrialdietarako informazioa: telefono-zenbakia eta mezua.




3. Egiaztatu aktibatuta dagoela «Activar X-SAFE» laukitxo.




2. PAUSOA: X-SAFEn eta 1. BOTOI ESPEZIFIKOAREN ARTEKO LOTURA


1. Joan **Ezarpenak > Buttons >** aukerara, eta hautatu «Dedicated Button»




2. Egin klik **Press action** aukeran, eta egiaztatu X-SAFE hautatua dagoela.



3. Itzuli botoien menura, egin klik **Press mode** aukeran, eta aukeratu nahiago duzun modua.



3. PAUSOA: ALERTA-MEZU BAT PRESTATZEA



Alerta-mezu bat prestatzea gomendatzen dizugu, X-SAFE aukerak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko. Atzerako kontaketa aktibatzen da. Alerta gelditzeko, nahikoa da botoia sakatzea. Atzerako kontaketa amaitzen denean, aurrez hautatutako pertsonarentzako dei automatiko bat aktibatzen da.

ABISUA

Edozein jardura izan daiteke arriskutsua, eta kalteak edo heriotza ere eragin ditzake batzuetan. Aplikazioen erabiltzaileak du egiten dituen jardueren erantzukizuna, eta arrisku potentzialei aurrea hartzen jakin behar du. Gainera, jardura bat egiteko bere gaitasun fisikoa ebaluatzen jakin behar du. Zehazki, gailuaren komunikazio-eta sustapen-kanpainarako baliatu diren kirol-praktika muturrekoen irudiek gailuaren erresistentzia eta errendimendua frogatzeko balio dute, baina irudi horiek ez dira INOLA ERE interpretatu behar pizgarri gisa erabiltzaileak jardura horiek edo antzeko beste batzuk egin ditzan.

ERANTZUKIZUNIK EZA

Erabiltzaileak bere gain hartzen du aplikazioak eskuratzeko eta erabiltzeko erantzukizuna. Beraz, CROSSCALL markak ez du bere gain hartzen aplikazioa eta hari buruzko informazioa eskuratzean eta/edo erabiltzean sor daitekeen edozein kalteren erantzukizuna. Halaber, erabiltzaileari jakinarazten zaio CROSSCALLek, arrazoi teknikoak medio —mantentze-lanak, batik bat—, aplikaziorako sarbidea eten ahal izango duela aldi baterako. Erabiltzaileak onartu egiten ditu etenaldi horiek, eta uko egiten dio ezein erreklamaziori.

Aplikazioa eta zerbitzuak «beren horretan» eta «eskura dauden moduan» eskaintzen dira, bermerik gabe. CROSSCALLek ber esku dauden neurri guztiak hartzen ditu aplikazioa eta haren edukiak fidagarriak direla bermatzeko. Hala ere, erabiltzaileak akatsen bat edo omisioren bat atzematen badu, CROSSCALLek eskertuko dio erabiltzaileari haren berri ematea, helbide honetara idatziz: sav@crosscall.com.


EU

Erabiltzaileak adierazten du ezagutzen eta onartzen dituela sare mugikorraren eta Interneteko konexio-sarearen ezaugarriak, eta, bereziki, hauek guztiak: sareen ezaugarri funtzionalak eta errendimendu teknikoak; sareetara eta/edo webguneetara konektatzearekin eta/edo sartzearekin lotutako arazoak; sarearen erabilgarritasunarekin edo buxadurekin lotutako arazoak; Sarearen matxurekin edo ahalmenarekin lotutako arazoak; igarotze-denborarekin, lineako informazioa eskuratzearekin, eta datuak bistartzeko/kontsultatzeko, informazioa eskatzeko edo datuak beste edozein modutatik transmititzeko denborekin lotutako arazoak; etete-arriskuak; zenbait datu behar bezala ez babestearen arriskuak (bidegabeko jabetzeen edo lapurreten aurrean); sareetan dabilzan birusek kutsatzeko arriskua (birusei dagokienez, CROSSCALLe ez du inolako erantzukizunik hartzen bere gain).

Erabiltzaileak onartzen du xedapen hauen berri izan duela, eta ez dio egozten inolako erantzukizunik CROSSCALLi terminala behar bezala ez erabiltzeagatik gerta daitezkeen heriotza, istripu, gaixotasun edo/eta beste edozein gorabeheragatik.

CORE-M4 UR AZPIAN ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

Touch-lock funtzioa

Argazkiak ateratzeko, Touch-lock funtzioa aktibatu behar duzu ; funtzio horrek ukipen-pantaila blokeatzen du (argazki moduan, pantailaren goiko aldeko ikonoa). Gero, sakatu bolumen-botoia argazkiak ateratzeko (edo erabili botoi programagarriak).

Abisua: uretan sartu ondoren

Ur gazitan sartu ondoren, garbitu mugikorra ur gezatan. Atera kontu handiz estalki eta konektore guztiak. Gerta liteke bozgorailuaren eta mikrofonoaren zirrikituak uragatik blokeatuta egotea. Dei bat egin aurretik, itxaron minutu batzuk, mugikorrak berriz ohi bezala funtzionatu arte.

CORE-M4 TERMINALARI ETEKINIK HANDIENA ATERATZEKO IRADOKIZUNAK

BERRIA: Klik bakarrek kendu irekita dauden aplikazioak:

irristatu hatza behetik gora irekita dauden aplikazio guztiak gordetzen diren lekura joateko. Irristatu berriz hatza behetik gora aplikazioaren gainean, telefonotik kentzeko.

BERRIA: Erraz pasatu aplikazio batetik bestera:

Irristatu hatza behetik gora, baina diagonalean. Egin aplikazio batetik bestera pasatzeko mugimendua.

Pantaila zatitzeko modua: 2 leiho batera irekitzeko

Pantaila bitan zatitzeko aukera duzu. Adibidez: Youtube + Whatsapp.

Aplikazioa irekita daukazula, irristatu hatza behetik gora irekita dauden aplikazio guztiak gordetzen diren lekura joateko.

Egin klik aplikazioaren ikonoan (goiko aldean).

Sakatu pantaila zatitzeko moduan, eta bigarren aplikazioa hautatu ahal izango duzu.


*Aplikazio guztiak ez dira bateragarriak pantaila zatitzeko moduarekin.

Zenbait hizkuntzaren konfigurazioa

Hizkuntza batean baino gehiagotan txateatzeko eta mezuak bidaltzeko, hainbat hizkuntza konfiguratu ditzakezu, hala teklatura egokitzeko eta aldiro erabiltzen duzun hizkuntzan egindako akatsak zuzentzeko.

Ezarpenak > Sistema > Hizkuntza eta idazketa > Hizkuntzak > + Gehitu hizkuntza bat.
Mezu bat idaztean, sakatu zuriune-tekla eta aukeratuzer hizkuntza nahi duzun.

Erabiltzaileak eranstea

Jakinarazpen-barran,  ikonoan klik egitean, «gonbidatu»-kontu bat ireki dezakezu. Hala, interfazea pertsonalizatzeko eta kontu horri dagozkion aplikazioak aukeratzeko aukera izango duzu (haur-jokoak, laneko kontua, etab.).

EU

BATERIAREN EGOERA

Autonomia, hizketan ari zarela: 17 h

Autonomia, telefonoa erabili gabe: 382 h


Autonomia, GPSa erabiliz*: 7 h

* GPSa + DATUAK + GOOGLE maps aktibatuz + pantailaren distira: % 100


Oharra: bateriaren kontsumoan eragina izan dezakete estalduraren kalitateak, pantailaren argitasunak, aktibatutako konexio-sistemek (wifi, Bluetooth, NFC), lokalizazio-zerbitzuek, eta abar.

Bateria kargatzea

Gailua lehenengo aldiz erabili aurretik, kargatu erabat terminalarekin batera ematen den korrante alternoko kargagailuarekin.

 Ez kargatu inoiz mugikorra aldi berean erabiliz X-LINK™* konexio magnetikoa eta USB konexioa; bestela, mugikorraren osagarrien bizitza erabilgarria murrizteko arriskua dago.



1. Ireki estankotasun-estalkia, eta konektatu USB kablea USB korrante-egokigailura; ondoren, konektatu USB kablearen muturra USB atakara.
2. Konektatu USB korrante-egokigailua korrante-hargune batera.
3. Bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu telefonoa kargagailutik. Lehenengo, deskonektatu kargagailua telefonotik, eta, gero, korrante-hargunetik.



ENERGIA AURREZTEKO MODUA

Aukera honek oinarrizko funtzioetara mugatzen du mugikorraren erabilera (deiak, SMS/MMS, Internet eta SOS + 4 funtzio programagarri). Wifi, bluetootha eta datu mugikorrak desaktibatzen ditu bateria aurrezteko. Pantaila txuri-beltzera aldatzen da, energia-kontsumoa aurrezteko.

Erraz erabiltzeko eta konfiguratzeko, hauen bidez:


Erabili jakinarazpen-barrako lasterbidea (irristatu hatza goitik behera pantailan), bigarren orrialdean,  > Power Saving Mode Energia aurrezteko modua desaktibatzeko, egin klik hemen:  > Disable energy saving mode

EU

Beste aukera bat: leiho gainerakorraren bidez, bateriaren karga % 20koa baino baxuagoa denean.



BATERIA AURREZTEKO MODUA:

Modu hori ez da energia aurrezteko modua bezain murriztailea. Pantailaren distira apaltzen du, eta prozesadorearen errendimendua murrizten, hala bateria gutxiago kontsumitzeko. Jakinarazpen-barraren bidez sartzen da modu horretara (hatza pantailan goitik behera irristatuz);  ikonoa du (bateria aurreztea). Modu hori desgaitzeko, sakatu berriz ikono beraren gainean. Ikonoaren gainean segundo batzuek sakatuz gero, bateriaren egoerari buruzko informazioa ikusiko duzu.

Bateria kargatzeko aholkuak eta kontuan hartu beharrekoak



Bateria telefonoan txertatuta dago, eta ezin da atera. Ez atera bateria.

- Baimendutako kargagailuak, bateriak eta kableak soilik erabili. Baimendu gabeko kargagailuek eta kableek bateria leherrarazi dezakete, eta gailua kaltetu.
- Ez erabili gailua kargatzen ari den bitartean. Ez estali telefonoa eta korrante-egokigailua.
- Kargagailua behar bezala ez konektatzeak kalte larria eragin diezaioke mugikorrari. Gailua behar bezala ez erabiltzeak eragindako kalteak ez dira sartzen bermean.
- Korrante alternoko elikadura tentsio baxuagokoa baldin bada, bateriak denbora gehiago beharko du kargatzeko.
- Kargagailu ez-konbentzionalak erabiltzen badituzu (adibidez, ordenagailu bat), bateriak denbora gehiago beharko du kargatzeko.
- Kargatu bateria mugikorra lehen aldiz erabili aurretik, eta deskonektatu kargagailua, bateria kargatzez amaitu bezain laster.

- Telefonoa kargatzen ari ez denean, deskonektatu kargagailua korrante-hargunetik.
- Baliteke telefonoa ez berehala piztea, bateria guztiz deskargatua zegoela hasi bazara kargatzen. Kargatzeko denbora-tarte bat hartu ondoren, ohi bezala piztuko da telefonoa.
- Karga-denbora aldatu egin daiteke giro-tenperaturaren arabera eta bateria-mailaren arabera.
- 0 °C eta 40 °C artean, guztiz segurua da telefonoa kargatzea. 0 °C-tik beherako edo 40 °C-tik gorako tenperaturan kargatuz gero, gerta liteke bateriaren prestazioei eragitea eta haren autonomia murriztea. Mugikorra muturreko tenperaturetan kargatzeak kalte egin diezaioke bateriari epe luzera.
- Kargatzean, mugikorra eta kargagailua berotu egin daitezke.

Hori normala da, eta ez dio zertan eragin telefonoaren bizitza erabilgarriari, ez eta haren errendimenduari ere. Bateria ohi baino gehiago berotzen bada, eten karga-prozesua. Utzi mugikorra leku fresko batean, hoztu dadin. Mugikorra berotu egiten bada, ez ukitu luzaro haren gainazala.



Gailuaren funtzioak aldatu egiten dira kokapenaren, hizkuntzaren, operadorearen eta modeloaren arabera. Gailu honek OTG funtzioa du. Erabili OTG kable estandar bat.

TELEFONOA EZAGUTZEA

Pantaila nagusia:



Sakatu tekla hau pantaila nagusia ikusteko.

Azkena erabiliak



irristatu hatza behetik gora irekita dauden aplikazio guztiak gordetzen diren lekura joateko.

Atzera tekla




Ukitu aurreko pantailara itzultzeko.

TELEFONOA EZAGUTZEA

Nola erabili ukipen-pantaila

Nahikoa duzu keinu erraz batzuk egitea mugikorra eta haren aplikazioak erabiltzeko.




UKITZEA

Aplikazio bat irekitzeko, menuko elementu bat aukeratzeko, ukipen-pantailako tekla bat sakatzeko edo pantailako teklatuarekin karaktere bat idazteko, ukitu nahi duzun elementua hatzarekin.

LUZE SAKATZEA

Jarri hatza elementu baten gainean edo pantailan, eta eduki horrela 2 segundoz, menuko aukeretara sartzeko.


IRRISTATZEA




Pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan zaudela, irristatu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz beste orri batzuk ikusteko.

Irristatu hatza gorantz edo beherantz webgune batean edo elementu-zerrenda batean mugitzeko.

BI HATZEN BIDEZ MUGITZEA




Jarri hatzak elkarrekin webgune baten, mapa baten edo irudi baten gainean, eta, ondoren, aldendu hatz bata bestetik elementu horren zati bat handitzeko.



Hurbildu bi hatzak zooma desaktibatzen.

ARRASTATZEA




Elementu bat mugitzeko, jarri hatza gainean, eutsi horrela eta arrastatu elementua nahi duzun tokira.

JAKINARAZPEN-PANELA

Jakinarazpen-panela irekitzea

1. Jakinarazpen-panela irekitzeko, irristatu hatza pantailaren goiko ertzetik beherantz.
2. Lasterbide-fitxara joateko, lerratu berriro hatza pantailaren goiko ertzetik.



JAKINARAZPEN-AUKERAK KONFIGURATZEA

1. Joan **Ezarpenak > Aplikazioak eta jakinarazpenak** aukerara.
2. Aktibatu edo desaktibatu jakinarazpenak, zure lehentasunen arabera.

Jakinarazpen-panela ixtea

Irristatu hatza gorantz pantailan edo sakatu saioa hasteko botoia jakinarazpen-panela ixteko.

PANTAILA BLOKEATZEA ETA DESBLOKEATZEA

Pantaila blokeatzea

- Sakatu **pizteko/itzaltzeko** botoia pantaila eskuz blokeatzeko.
- Energia-kontsumoa gutxitzeko eta nahi gabeko ekintzak eragozteko, pantaila automatikoki blokeatzen da, eta itxaroteko moduan gelditzen da, denbora-tarte batean inaktibo egon ondoren. Itxaroteko moduko denbora aldatzeko, joan **Ezarpenak > Bistaratzera > Aurreratua > Ezarri egonean moduan** aukerara, eta hautatu zuk nahi duzun denbora.

PANTAILA DESBLOKEATZEA

Sakatu **pizteko/itzaltzeko** botoia pantaila berriz pizteko, eta irristatu hatza edozein noranzkotara.

PANTAILA NAGUSIA PERTSONALIZATZEA

1. Sakatu luze pantailaren eremu huts batean pantailaren nagusiaren editorera sartzeko.
2. Hautatu **HORMA-PAPERAK ETA WIDGETAK** pantaila pertsonalizatzeko.
3. Widget bat ezabatzeko, luze sakatu ezabatu nahi duzun widgetaren gainean. Pantailaren goialdean, «**Ezabatu**» agertuko da. Gero, arrastatu widgeta «**Ezabatu**» aukerara.

DATA ETA ORDU ALDATZEA

Joan **Ezarpenak > Sistema > Data eta ordua** aukerara.

- Aktibatu **Data eta ordu automatikoa** sarearen ordu-eremua baimentzeko.
- Aktibatu **Erabili 24 orduko formatua** formatua 24 orduko erlojua erabiltzeko.

GAILUEN ETA DATUEN KUDEAKETA

Datu-transferentzia

 Ez deskonektatu USB kablea gailutik, fitxategiak transferitzen ari diren bitartean. Hori eginez gero, datuak gal litezke edo gailua honda liteke.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kablearen bidez.
2. Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu 'Gailua USB bidez kargatzen > Fitxategi-transferentzia. Ukitu PTP zure ordenagailuak ez badu onartzen protokoloa (Media Transfer Protocol).
3. Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean. Mezu bat azalduko da ordenagailuaren pantailan. Segi pantailako jarraibideei, argazkiak, bideoak... transferitzeko.

Datu mugikorrak


Hasierako menuan, irristatu beherantz jakinarazpen-barra, eta egin klik «Datos móviles» widgetenean deskatibatzeko, edo:

Ezarpenak > Sareak eta internet > Datuen erabilera > Datu konexioa, eta desaktibatu «Datu konexioa».

Fabrikako doikuntzak berrezartzea

> Fabrikako doikuntzak berrezartzea: **Ezarpenak > Sistema > Aurreratua > Berrezarri aukerak**, eta sakatu > Ezabatu datu guztiak (berrezarri fabrikako ezarpenak); gero, sakatu «BERREZARRI TELEFONOA».

Abisua: eragiketa honek mugikorrean biltegitratutako datu guztiak ezabatuko ditu.

 Fabrikako doikuntzak berrezarri aurretik, egin telefonoan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia. Gailua automatikoki berrabiaraziko da.

TELEFONOA ERABILTZEA

Pantaila nagusia

Mugikorraren funtzio guztietara sartzeko abiapuntua da pantaila nagusia. Widgetak, aplikazioetara sartzeko lasterbideak eta beste hainbat kontu ageri dira hor.

 Pantaila nagusiaren itxura aldatu egin daiteke eskualdearen edo operadorearen arabera.

Egoera-barra

Egoera-ikonoak eta jakinarazpenak bistaratzen ditu.

Widgetak




Widgetak aplikazio jakin batzuen funtzioak abiarazten dituzten aplikazioak dira, informazioa emateko eta pantaila nagusira erraz sartzeko.

Aplikazioen ikonoak

Ukitu ikono bat (aplikazio batena, fitxategi batena...), irekitzeko eta erabiltzeko.

TELEFONOA



Dei bat egitea

1. Sakatu  pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Sakatu  teklatura irekitzeko eta telefono-zenbakia sartzeko.
3. Sakatu  dei bat egiteko.

Deien erregistrotik edo kontaktu-zerrenda batetik deiak egitea

Sakatu  edo  eta nahi duzun kontaktua edo telefono-zenbakia dei bat egiteko.

NAZIOARTEKO DEI BAT EGITEA

1. Sakatu  teklatura irekitzeko.
2. Sakatu 0, eta eutsi + ikurra agertu arte.
3. Idatzi herrialdearen kodea, areari dagokion kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, sakatu .

Deiak jasotzea

Dei bati erantzutea

Dei bat jasotzean, sakatu , eta irristatu hatza gorantz erantzuteko.


Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzean, sakatu  deia ez onartzeko.

KONTAKTUAK


Kontaktuak gehitzea

Kontaktu bat eskuz sortzea

1. Sakatu kontaktuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Sakatu  kontaktuari buruzko informazioa sartzeko.

3. Sakatu Gorde.

Telefono-zenbaki bat kontaktuetan gordetzea teklatura erabilia

1. Sakatu  irekitzeko
2. Sartu zenbakia, eta sakatu Sortu kontaktua.

Kontaktu bat jasotako dei batetik gehitzea

1. Sakatu .
2. Sakatu  jasotako deiak ikusteko.
3. Lotu dei horiek kontaktu bati.

Kontaktuak inportatzea


Kontaktuak gailura inportatu ditzakezu hainbat biltegiatze-zerbitzuetatik.

1. Sakatu kontaktuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Sakatu **Inportatu**
3. Hautatu inportazio-aukera bat.

Kontaktuak bilatzea

Sakatu kontaktuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.

Erabili bilaketa-metodo hauetako bat:

- Mugitu gora edo behera kontaktuen zerrendan.
- Irristatu hatz bat aurkibidean barrena (kontaktu-zerrendaren eskuinean dago), azkar mugitzeko.
- Sakatu , pantailaren goialdean, kontaktu bat bilatzeko.

MEZUAK

Mezuak bidaltzea


1. Sakatu mezuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Sortu mezu bat.
3. Gehitu hartzaileak, eta idatzi mezu bat.

4. Bidali mezua.

Mezuak bistaratzea

1. Sakatu mezuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Hautatu kontaktu bat mezuen zerrendan.
3. Bistaratu elkarrizketa.


Mezuak bilatzea

1. Sakatu mezuen ikonoa pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Sakatu  mezuak bilatzeko gako-hitzak sartzeko.


KAMERA

Argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.

Argazkiak ateratzea

1. Sakatu  pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.
2. Enkoadratu objektu bat pantailan.
3. Egin argazki bat Irudia **Galeria** karpetan gordeko da automatikoki.

KAMERA MARTXAN JARTZEA BLOKEO-PANTAILAN



Argazkiak azkar ateratzeko, blokeo-pantailan ireki dezakezu kamera. Irristatu  ikonoa blokeo-pantailako zirkulu handiaren kanpoalderantz.

GALERIA


Irudiak edo bideoak bistaratzea

1. Ukitu galeriaren ikono aplikazioen pantailan.
2. Hautatu irudi bat edo bideo bat.

Irudiak edo bideoak ezabatzea

- Irudi bat edo bideo bat ezabatzeko, hautatu, eta sakatu , ezabatzeko.
- Hainbat irudi edo bideo ezabatzeko, ukitu galeria nagusiko pantaila 'Select item' aukerara joateko. Gero, hautatu ezabatu nahi dituzun irudiak edo bideoak, eta sakatu  ezabatzeko.

Irudiak edota bideoak partekatzea

Hautatu argazki bat edo bideo bat, eta sakatu  pantailaren behealdean. Hautatu partekatzeko metodo bat.

KALKULAGAILUA

Ireki kalkulagailuaren aplikazioa kalkulu sinpleak nahiz konplexuak egiteko.

1. Sakatu  aplikazioen pantailan.
2. Aldatu pantailaren orientazioa kalkulagailu estandarretik kalkulagailu zientifikora pasatzeko.

AUDIOA

Mugikorrean abestiak gehitzea

- Kopiatu abestiak zure ordenagailutik, USB kable bat erabiliz.
- Deskargatu abestiak Internetetik.
- Kopiatu abestiak Bluetooth bidez.

Musika entzutea

1. Ukitu musikaren ikonoa.
2. Hautatu entzun nahi duzun abestia.
3. Abesti bat erreproduzitzen ari dela, sakatu pantaila nagusira itzultzeko botoia, musika erreproduzitzeko pantailatik ateratzeko baina kanta eten gabe. Musika erreproduzitzeko pantailara itzultzeko, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu erreproduzitzen ari den abestiaren izenburua.

NABIGATZAILEA


Konektatu Internetera informazioa bilatzeko, eta gehitu weguneak gogokoetan, horietara bizkor sartzeko.

1. Sakatu .
2. Sartu helbidea bilaketa-barran, eta sakatu . Webguneetara sartzear gain, gogokoetara ere sar zaitezke, leiho batetik bestera pasatu, eta beste funtzio batzuk baliatu.

POSTA ELEKTRONIKOA

Posta elektronikoko kontuak konfiguratzeko

Posta elektronikoen aplikazioa lehen aldiz irekitzen duzunean, konfiguratu posta elektronikoko kontu bat.

1. Sakatu  aplikazioen pantailan.
2. Sakatu **GOT IT**, eta, gero, egin klik 'Gehitu helbide elektronikoa' aukeran. Hautatu posta elektronikoko zure hornitzailea.
3. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei konfigurazioa osatzeko.

SISTEMAREN EGUNERAKETAK

Eguneratzeak telefono mugikorrean instalatutako softwarearen bertsioan egindako aldaketak dira. Eguneratze horien helburua softwarean egon daitezkeen akatsak zuzentzea da.

SEGURTASUN-NEURRIAK

Segurtasun orokorrari buruzko informazioa

Segurtasun-jarraibideak ez betetzeak sute bat, deskarga elektriko bat edo lesio fisikoak eragin ditzake, eta kalteak eragin ditzake mugikorrean edo beste objektu batean. Telefono mugikorra erabili aurretik, irakurri segurtasun-jarraibide guztiak.

- Itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoen guztietan, interferentziak edo arrisku-egoerak sor baititzake.
- Ez utzi eremu magnetikoen eraginpean.
- Itzali gailua hegazkinetan eta aireportuetan, hala eskatzen dizutenean.
- Itzali telefonoa doikuntza-maila handiko gailu elektroniketatik hurbil bazaude. Telefonoak mota horretako aparatuen prestazioei eragin diezaieke.
- Ez jarri gailua eta haren osagarriak eremu elektromagnetiko handiko lekuetan.
- Ez utzi datuak gordetzeko euskarri magnetikorik telefonotik hurbil. Gailuak sortzen duen erradiazioak mugikorrean gordetako informazioa ezabatu dezake.
- Ez utzi mugikorra eguzkiaren zuzeneko eraginpean. Ez utzi mugikorra tenperatura altuen eraginpean, eta ez erabili gas sukoirik badago inguruan (adibidez, gasolindegian).

- Deiak egitean, eutsi telefonoari gorputzetik 15 mm-ra gutxienez.
- Pieza txikiak irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.
- Telefonoak hots handia egin dezake.
- Ez jo edo ez hondatu telefonoa.
- Mugikor honen osagai batzuk kristalezkoak dira. Kristala hautsi egin daiteke mugikorra gainazal gogor baten gainera erortzen bada edo kolpe handi bat hartzen badu. Kristala hausten bada, ez ukitu mugikorraren kristalezko piezak, eta ez saiatu hautsitako kristalezko zatiak kentzen. Ez erabili gailua teknikari baimendu batek kristala aldatu arte.
- Ez saiatu telefonoa edo osagarriak desmuntatzen. Telefono mugikor baten mantentze-lanak edo konponketak langile kualifikatuek bakarrik egin behar dituzte.
- Korrante-harguneak mugikorretik gertu egon behar du, erraz iristeko toki batean.
- Bete telefono mugikorraren erabilerari buruzko araudi guztiak. Telefonoa erabiltzean, errespetatu besteen pribatutasuna eta eskubideak.
- Errespetatu eskuliburu honetako USB kablearen erabilerari buruzko jarraibideak. Bestela, hondatu egin daitezke telefono mugikorra edo ordenagailua.
- Garbitu mugikorra zapi lehor eta leun batekin. Ez erabili urik («Estankotasunari buruzko informazioa» atalean adierazitako baldintzak betetzen ez baditu), ez alkoholik, xaboirik edo produktu kimikorik.
- Saiatu datu garrantzitsuak gordetzen; konponketa batek eta beste faktore batzuek datuak galtzea eragin dezakete.
- Ez deskonektatu telefonoa fitxategiak transferitzen edo memoria formateatzen ari zarela. Horrek akats bat eragin dezake programan edo kalte egin diezaieke fitxategiei
- Gorde telefonoa eta kargagailua haurrek hartu ezin dituzten lekuan. Ez utzi haurrei telefonoa edo kargagailua erabiltzen, norbaitek gainbegiratu gabe.
- Terminal hau ez da egokia pertsona batzuentzat (haurrak barne), haien gaitasun fisiko, sentzorial edo mentalak edo esperientziarik edo ezagutzarik ez izateak aparatua segurtasunez erabiltzea eragozten badie, eta, beraz, ez da komeni erabiltzea, zaintzapean ez badaude edo beren segurtasun-arduradunak ez badie eman aurrez segurtasunez erabiltzeko jarraibiderik.
- Ez utzi mugikorraren osagarri txikiak haurren eskueran, asfixia-arriskuak saihesteko.
- Ez utzi haurrei edo animaliei gailua hozkatzen edo miazkatzen.
- Ez aldatu edo egokitu mugikorra.
- Ez jarri mugikorra sugarretan, ez egin mugikorra leherraraz dezakeen ezer, eta arrisku-iturrietatik urrun eduki.

- Itzali telefonoa, material edo likido leherkorren ondoan zaudenean.
- Mugikorra USB 2.0 interfaze batera bakarrik konektatu behar da.
- Gailuak behar bezala funtzionatzeko, 0 °C eta 40 °C arteko temperatura erabiltzea gomendatzen da; gordetzeko, berriz, 20 °C eta 50 °C arteko temperatura da egokiena.
- Ez erabili gailua zatiren bat pitzatuta edo hautsita badago edo gehiegi berotzen baldin bada.
- Ez estutu gailua begien, belarrien edo gorputzeko beste edozein atalen kontra, eta ez sartu ahoan.
- Ez jarri flasha pertsonen edo animalien begietara begira.
- Telefono honen jatorrizko osagarriak bakarrik erabili, eta ez instalatu bateria beste mugikor batean.

ESTANKOTASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA

- IP68 babes-mailako mugikor bat erosi berri duzu. Erabilera egokia eta estankotasun perfektua bermatzeko, egiaztatu behar bezala itxita daudela irekiduren estalki guztiak eta estalki nagusia.
- Ez ireki estalkiak, ezta gailuaren SIM erretilua ere, urarekin kontaktuan edo oso ingurune hezean bazaude.
- Kontuz ireki eta itxi estalkiak, kalterik ez eragiteko. Egiaztatu ez dagoela zikinkeriarik junturan (adibidez, harea edo hautsa), gailuak kalterik izan ez dezan.
- Estalki nagusia eta irekiduren estalkiak lasaitu egin daitezke, erorikoen edo kolpeen ondorioz.
- Egiaztatu estalki guztiak ondo lerrokatuta eta itxita daudela.
- Gailua uretara erori bada edo mikrofonoa, entzungailua edo bozgorailua bustita badaude, baliteke audioa garbia ez izatea deietan. Gailua urperatu ondoren minutu batzuk itxarotea gomendatzen da, jatorrizko soinu-kalitatea berreskuratzeko. Garbitu eta lehortu mikrofonoa eta bozgorailua zapi lehor batekin.
- Gailua ur gaziz edo kloratuz bustitzen bada, garbitu iturriko urarekin eta, ondoren, lehortu ondo zapi garbi eta leun batekin. Atera kontu handiz estalki eta konektore guztiak.
- Gailuaren estankotasunak bibrazio txikiak eragin ditzake baldintza jakin batzuetan. Bibrazio horiek (adibidez bolumena asko igotzen denean) ez diote eragiten gailuaren funtzionamenduari.
- Ez desmuntatu eta ez erabili mikrofonoa eta bozgorailuak estaltzen dituen geruza iragazgaitza honda dezakeen ekiporik. (objektu zorrotz bat, mozteko balio duen objektu bat, eta abar.).

- Ez utzi produktua metalezko partikulen eraginpean: bozgorailuan metatu daitezke, barruan duen imanaren ondorioz. Metalezko partikulak zapi leun batekin garbitu daitezke. Babesteko, plastikozko poltsa batean sar dezakezu.
- Temperatura-gorabeherak gertatzen direnean, presioa handitu edo jaitsi egin daiteke, eta horrek soinuaren kalitateari eragin diezaioke. Behar izanez gero, ireki tapak airea askatzeko.

GAILU MEDIKOAK

- Itzali mugikorra ospitaleetan eta hala eskatzen duten beste osasun-instalazio batzuetan.
- Eremu elektromagnetikoak igortzen dituzten irrati-antenak ditu mugikorrak. Eremu elektromagnetiko horiek interferentziak eragin ditzakete taupada-markagailuetan eta beste gailu mediko batzuetan.
- Taupada-markagailu bat baduzu, utzi gutxienez 20 cm-ko tartea taupada-markagailuaren eta mugikorraren artean.
- Eutsi gailuari gailua inplantearen aurkako aldean.
- Iruditzen bazaizu mugikorra interferentziak eragiten ari dela zure taupada-markagailuarekin edo beste gailu medikoren batekin, utzi erabiltzeari, eta galdetu medikuari zure gailu medikoari buruzko informazio zehatza biltzeko.
- Ekintza errepikakorrak egiten badituzu (mugikorrarekin idatzi edo jokoren batekin aritu, adibidez), baliteke mina sentitzea eskuetan, besoetan, eskumuturretan, sorbaldetan, lepoan edo beste gorputz-atal batzuetan. Mina sentitzen hasten bazara, utzi telefonoa erabiltzeari, eta galdetu medikuari.

BIDE-SEGURTASUNA

- Bete mugikorra ibilgailu batean erabiltzeko moduari buruzko araudi guztiak.
- Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen ari zarenean, libre izan beti eskuak ibilgailua gidatzeko. Gidatzean, bide-segurtasuna izan behar du zure kezka nagusia.
- Gelditu eta aparkatu ibilgailua deiari erantzun edo deia egin aurretik, zirkulazio-baldintzek hala eskatzen badute.
- Irrati-maiztasuneko seinaleek ibilgailuaren sistema elektronikoko batzuei eragin diezaiokete, hala nola autorradioari eta segurtasun-ekipoari.
- Zure ibilgailuak airbagak baditu, saia zaitzez haietarako sarbidea ez blokeatzen; beraz, ez jarri haririk gabeko ekiporik edo ekipo finkorik haien aurrean. Bestela, gerta liteke airbagak behar bezala ez funtzionatzea eta lesio fisiko larriak eragitea. Debehatuta dago ibilgailu bat gidatzean mugikorra eskuan hartuta erabiltzea.

- Musika entzuten baduzu, saia zaitez zentzuzko bolumen batean egiten, ondo entzun dezazun zure inguruan gertatzen dena. Hori bereziki da garrantzitsua da errepide batetik hurbil zaudenean.
- Zenbait egoeratan telefonoa erabiliz gero, gerta liteke arreta galtzea eta egoera arriskutsuak sortzea. Errespetatu telefono mugikorrek edo entzungailuak erabiltzea debekatzen edo mugatzen duten arauak (adibidez, ez bidali testu-mezurik autoa gidatzen ari zarenean eta ez erabili entzungailurik bizikletan zabiltzanean).
- Debekatuta dago ibilgailu bat gidatzean mugikorra eskuan hartuta erabiltzea.

ELIKADURA ETA KARGA

- Ez bota sutara.
- Ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez utzi 60 °C / 140 °F-tik gorako tenperaturan.
- Birziklatu bateria indarrean dauden arauen arabera.
- Gailua kargatzeko, erabili gailuarekin batera emandako USB kablea eta egokigailua. Egokigailu edo kable bateraezin bat erabiliz gero, atzerabuelarik gabeko kalteak gerta dakizkioke gailuari.
- Egokigailua telefonotik hurbil eta erraz iristeko moduko leku batean entxufatu behar da.
- Kaltetutako kable edo kargagailuak erabiltzeak edo gailua giro hezean kargatzeak deskarga elektriko bat eragin dezake.
- Korrante-egokigailua barrualdean soilik erabiltzeko da.
- Korrante-harguneak erraz iristeko moduan egon behar du. Erabiltzean, hargunea ezin da blokeatu.
- Telefonoa korrante alternotik guztiz deskonektatzeko, atera CA/CC kablea hormako hargunetik.
- Korrante-egokigailuak berotu egin litezke ohiko erabilerarekin, eta denbora luzez ukituz gero lesioren bat eragin dezakete.
- Bermatu behar adinako aireztapena elikadura-egokigailuen inguruan, erabili bitartean.
- Ez estali aire-irteerak objektuekin (egunkariak, mahai-zapiak, errezelak, etab.) aireztapen egokia errazteko, hartara gailua ez dadin gehiegi berotu eta ondo funtzionatu dezan. Utzi gutxienez 10 cm-ko tarte librea mugikorraren inguruan.

- Telefonoa klima epeleko lekuetan erabili behar da.
- Ez konektatu edo deskonektatu USB ataka bateko hargune bat eskuak bustita dituzula, deskarga elektriko bat gertatzeko arriskua baitago
- Telefonoak berriz karga daitekeen barne-bateria duenez, ez utzi produktua bero handiko ingurune batean (eguzkitan, sutik gertu, etab.).
- Ez erabili konektorea hainbat eragiketa aldi berean egiteko, eta saiatu bateriaren terminalek ez dezaten kontakturik izan elementu eroaleekin (metalak edo likidoak).

ENTZUMENAREN BABESA



Irteerako gehieneko bolumena mugatzeari buruzko araudia errespetatzen du telefono honek. Musika entzungailuekin luzaroan eta bolumen altuan entzuteak kalte egin diezaioke entzumenari.

- Ez erabili gailua edo jaitsi bolumena belarrietan burrunbak entzuten hasten bazara.
- Ez asko igo bolumena. Medikuen arabera, ez da komeni zarata handia jasatea luzaroan.
- Zentzuz erabili entzungailuak; entzungailuak gehiegi erabiltzeak entzumena galtzea eragin dezake.
- Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez erabili gailua bolumen altuan denbora luzez.
- Mugikorrarekin batera datozen entzungailuak bakarrik erabili.

INGURUMENAREN BABESA

- Bete hondakinak ezabatzeari buruzko tokiko araudia bilgarria, bateria eta erabilitako telefonoa botatzen dituzunean. Utzi garbigune batean, behar bezala birziklatu ahal izateko. Ez nahastu telefonoa edo bateria etxeko hondakinekin.
- Eraman erabilitako edo behar ez dituzun litiozko bateriak horretarako izendatutako lekuetara. Ez bota zakarrontzira.



Ez nahastu telefonoa edo bateria etxeko hondakinekin.

Bateria lehertu egin daiteke, modelo desegoki batekin ordezkatzuz gero. Erabilitako bateriak zakarretara botatzeko, bete jarraibide egokiak.

GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANAK

- Itzali gailua mantentze-lanak egin aurretik. Atera kargagailua hargunetik. Telefonoak eta kargagailuak deskonektatuta egon behar dute bateriaren edo kargagailuaren deskarga elektriko bat edo zirkuitulabur bat eragozteko. Itxi estalkia.
- Ez garbitu mugikorra eta kargagailua substantzia kimikoekin (alkohola, bentzenoa), ez agente kimikoekin, ez garbigarri urratzaileekin, piezak ez daitezen hondatu edo ez dezaten jasan kalterik. Garbitzeko, zapi leun antiestatiko heze bat erabil daiteke. Edo iturriko urarekin, ESTANKOTASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA atalean agertzen diren jarraibideei jarraituz (96. orria).
- Ez urratu edo aldatu telefonoaren karkasa, pinturak dituen substantzietan erreakzio alergikoa eragin baitezakete. Holakorik gertatzen bada, utzi berehala telefonoa erabiltzeari, eta galdetu medikuari.
- Kendu hautsa elikadura-hargunetik eta mantendu lehor, sute-arriskuak saihesteko.
- Telefonoa edo haren osagarriak behar bezala ez badabiltza, jarri harremanetan tokiko banatzailearekin.
- Ez saiatu gailua edo osagarriak desmuntatzen.

LARRIALDI-DEIAK

Larrialdi-egoera batean, telefonoa piztuta badago eta zu sarearen estaldura-eremuan jartzen bazara, larrialdi-dei bat egiteko erabil dezakezu. Hala ere, baliteke larrialdi-deien zenbakiak ez eskuragarri izatea sare guztietan. Ez da komeni mugikorraren mende bakarrik egotea larrialdietako dei bat egiteko.

ERABILTZAILEAK ERRADIAZIO GUTXIAGO JASOTZEKO GOMENDIOAK

- Erabili telefono mugikorra sare-estaldura duten eremuetan, jasotako erradiazio-kopurua murrizteko (bereziki, lurpeko aparkalekuetan, trenez edo autoz egiten diren bidaietan, etab.).
- Erabili telefonoa estaldura handiagoga dagoenean (adibidez, seinalearen intentsitatea maximoa denean).
- Erabili esku libreko kita.
- Hitz egiten ari zarela, ez jarri telefonoa haurdun dauden emakumeen sabelaren ondoan, ez eta nerabeen sabelaren behealdean ere.
- Hurrek eta nerabeek zentzuz erabili beharko lituzkete telefono mugikorrek, gaueko komunikazioak saihestuz eta deien maiztasuna eta iraupena mugatuz.

ARAUDIAREN ARABERAKO

INFORMAZIO OSAGARRIA



- CROSSCALLek adierazten du gailu honek 2014/53/EU direktibaren oinarritzko eskakizunak eta beste xedapen batzuk betetzen dituela. Indarrean dagoen adostasun-deklarazioa, bertsio berriena, https://crosscall.com/docs/legal/ce-international_declaration_of_conformity-CORE-M4.pdf webgunean kontsultatu daiteke. Hurrek eta nerabeek zentzuz erabili beharko lituzkete telefono mugikorrek, gaueko komunikazioak saihestuz eta deien maiztasuna eta iraupena mugatuz.
- 2,4 GHz-eko bandaren mugak: Norvegia: azpiatal hau ez da aplikagarria Ny-Ålesundeko zentrotik 20 kilometrorainoko erradioaren barruko eremu geografikoan. 5 GHz-eko bandaren mugak: 2014/53/EU direktibako 10. artikulua 10. paragrafoaren arabera, irrati-ekipo honen kaxak adierazten du muga batzuk izango dituela herrialde hauetan merkaturatzen denean: Belgika (BE), Bulgaria (BG), Txekiar Errepublika (CZ), Danimarka (DK), Alemania (DE), Estonia (EE), Irlanda (IE), Grezia (EL), Espainia (ES), Frantzia (FR), Kroazia (HR), Italia (IT), Zipre (CY), Letonia (LV), Lituania (LT), Luxenburgoko (LU), Hungaria (HU), Malta (MT), Herbehereak (NL), Austria (AT), Polonia (PL), Portugal (PT), Errumania (RO), Eslovenia (SI), Eslovakia (SK), Finlandia (FI), Suedia (SE), Erresuma Batua (UK), Turkia (TR), Norvegia (NO), Suitza (CH), Islandia (IS) eta Liechtenstein (LI).




MAIZTASUN- ETA POTENTZIA-BANDAK

- Irrati-ekipo elektronikoak erabiltzen duen maiztasun-banda: litekeena da banda batzuk ez egotea erabilgarri herrialde eta eremu batzuetan. Jar zaitez tokiko operadorearekin harremanetan, informazio gehiago nahi izanez gero.
- Irrati-ekipoak funtzionatzen duen maiztasun-bandan igorritako gehieneko irradi-maiztasuneko seinaleak: banda guztien potentzia maximoa arau bateratuan zehazten den muga-balio altuena baino txikiagoa da. Irrati-tresna honi aplikatu beharreko maiztasun-banden eta transmisio-potentziaren (erradiatuaren eta/edo eramanaren) muga izendatuak hauek dira:

Bandak	Maiztasuna	Gehieneko potentzia
GSM900	880 MHz-915 MHz	32,02 dBm
GSM1800	1 710 MHz-1 785 MHz	29,85 dBm
WCDMA B1t	1 920 MHz-1 980 MHz	23,71 dBm
WCDMA B5	824 MHz-849 MHz	24,26 dBm
WCDMA B8	880 MHz-915 MHz	23,97 dBm
LTE B1	1 920 MHz-1 980 MHz	24,12 dBm
LTE B3	1 710 MHz-785 MHz	24,35 dBm
LTE B5	824 MHz-849 MHz	24,12 dBm
LTE B7	2 500 MHz-2 570 MHz	24,14 dBm
LTE B8	880 MHz-915 MHz	23,86 dBm
LTE B20	2 010 MHz-2 050 MHz	24,39 dBm
LTE B28	2 570 MHz-2 620 MHz	24,66 dBm
LTE B38	2 300 MHz-2 400 MHz	23,87 dBm
Bluetootha	2 402 MHz-2 480 MHz	9,72 dBm
Bluetooth LE	2 402 MHz-2 480 MHz	5,51 dBm
802.11 a/b/g/n/ac (HT 20/40/80)	2 412 MHz-2 472 MHz	17,81 dBm
	5 150 MHz-5 250 MHz	11,38 dBm
	5 250MHz-5 350 MHz	11,21 dBm
	5 470 MHz-5 725 MHz	11,66 dBm
	5 725 MHz-5 850 MHz	13,16 dBm
NFC	13,56 MHz	-22,69 dBuV/m

OSAGARRIEI ETA SOFTWAREARI BURUZKO INFORMAZIOA

Osagarri hauek erabiltzea gomendatzen dizugu:

OSAGARRIAK	MODELOA	EZAUGARRI TEKNIKOAK
	Marka komertziala: Cross-call ModeloA:CSCM4CM4GO. BK.EU	Sarrerako tentsioa: 100240 V- Korrante alternoaren sarrerako maiztasuna: 50/60 Hz Irteerako tentsioa: 5,0 V \equiv Irteerako korrantea: 1,0 A Irteerako elikadura: 5,0 W Batez besteko efizientzia aktiboa: % 73,82 Efizientzia karga txikiarekin (% 10): Energia-kontsumoa kargarik gabe: 0,084W
	Erref. Crosscall: EP.CORE. BK.2019	IPX4
	Erref. Crosscall: CABL.COM4. GO.BU	USB / USB-C

Produktuaren softwarearen bertsioa L1551.X.XX.XX.XXXX da (zeinean X den = 0tik 9ra, eta Atik Zra, eta erabiltzaile-esperientziaren eguneraketei, segurtasun-adabakiei eta abarrei baitagokie). Fabrikatzaileak software-eguneratzeak argitaratzen ditu, produktua merkaturatu ondoren akatsak zuzentzeko edo funtzioak hobetzeko. Fabrikatzaileak argitaratzen duen softwarearen bertsio guztiak egiaztatu dira, eta beti betetzen dute araudi aplikagarria. Erabiltzaileak ez du irradi-maiztasuneko parametroetara sartzerik (adibidez, maiztasun-bandara eta irteera-potentziara), eta, beraz, ezin ditu aldatu. Osagarriei eta softwareari buruzko informazio eguneratua ikusteko, begiratu adostasun-deklarazioa, webgunean:

ABSORTZIO ESPEZIFIKOAREN TASA (SAR)

- Gailu honek irradi-maiztasunetik esposizioari buruzko direktibak betetzen ditu, burutik hurbil edo gorputzetik gutxienez 5 mm-ko distantziara erabiltzen denean. ICNIRP erakundearen gomendioen arabera (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection), absortzio espezifikoaren tasaren muga 2,0 watt/kg da bururako eta gorputzerako, eta 4,0 watt/kg gorputz-adarretarako, batez beste, maiztasun-kantitate handiena xurgatzen duen 10 gramo zelula-ehuneko.

Modelo honetarako gehieneko balioak:

- SAR tasa bururako: 0,72 (W/kg) ==> baimendutako muga-balioa: 2 (W/kg)
- SAR tasa gorputzerako: 1,32 (W/kg) ==> baimendutako muga-balioa: 2 (W/kg)
- SAR tasa gorputz-adarretarako: 2,55 (W/kg) ==> baimendutako muga-balioa: 4 (W/kg)

CORE-M4, Frantzia diseinatua eta Txinan muntatua

Nork sortua eta inportatua: CROSSCALL - 245 RUE PAUL LANGEVIN 13290 AIX EN Pce - Frantzia
www.crosscall.com webgunean duzu erabiltzailearen eskuliburuaren bertsio osoa.

JABETZA INTELEKTUALA

Ekipamendu hau erabilera pribaturako erreserbatuta dago. Disko konpaktuak kopiazea edo musika, bideoak edo argazkiak deskargatzea —saltzeko edo beste edozein merkataritza-helburutarako— Jabetza Intelektualaren arloko lege-haustea izan daiteke. Baliteke Jabetza Intelektualaren Legeak arautzen dituen dokumentu, lan eta/edo aurkezpen bat osorik edo zati bat kopiatzeko edo grabatzeko baimena behar izatea. Aintzat hartu zure herrialdean eta jurisdikzioan edukien grabazioari eta erabilerari buruz indarrean dauden lege guztiak.

ERANSKINA INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Esperientzia ezin hobea eskaintzeko, mugikorra maiz konektatzen da web-zerbitzariekin eta posta elektronikoko zerbitzariekin. Horren ondorioz, ohiko tarifaren osagarri gisa fakturatu daitezkeen edo aurrez ordaintzeko txarteletik deskontatu daitezkeen datu-truke automatiko eta saihestezinak gertatzen dira.

Internet behar duten zerbitzuekin lotutako fakturazio-arazorik izan ez dadin, webgunera eta posta elektronikora mugarik gabe sartzeko eskaintza egokitu bat aukeratzea gomendatzen dizugu. Halaber, ez aldatu aurrez ezarritako parametroak. Nahi baduzu, konektatu WiFi sarera azkarrago eta eraginkorrago aritzeko. Bereziki, WiFi sarea erabiltzea gomendatzen dizugu, edukia bidaltzen duzunean edo tamaina handiko jokoak, bideoak edo filmak deskargatzen dituzunean.

BERMEAREN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

Telefonoak, kaxan datozen bateriarekin eta osagarriekin batera, diseinuan, fabrikazioan edo materialen egon daitezkeen edozein hutsek eragindako akats edo funtzionamendu okerren aurkako bermea du bermearen balio-epan (hogeita hamasei —36— hilabete, telefonoa erosi zen unetik zenbatzen hasita, jatorrizko fakturan ageri den bezala), betiere ere ohiko kondizioetan erabili baldin bada.

Bermea automatikoki amaitzen da hogeita hamasei (36) hilabeteren buruan. CORE-M4 telefonorako behar diren ordezkoko piezak 3 urterako egongo dira eskuragarri, telefonoa erosi zen egunetik zenbatzen hasita.

Berme honek ez ditu estaltzen:

- Berme honen balio-epa amaitu ondoren hautemandako matxurak edo akatsak,
- Istripu batek, baldintza meteorologiko txarrek, tximistek, suteek, produktu kimikoek, gaintentsioak, terminalaren edo osagarriaren erabilera desegokiak edo mantentze-lan desegokiek eragindako kalteak (pantaila haustea, zikinkeria, terminalaren barruko osagaiak aldatzea, likido baten esposizio ezohikoaren edo luzearen ondorioz), eta eskuliburu honetako jarraibideak ez betetzearen ondorioz gertatutakoak.
- Edozein eratako higadurak eragindako kalteak, betiere salmentaren ondoren gertatu baldin badira (bereziki, marra eta urradurak, urratuak eta, oro har, gailuaren kanpoko aldeetan eragindako eta haren funtzionamendua eragozten ez duten kalte guztiak);

- Bezeroak edo hirugarren batek jatorrizko softwarea aldatu dion mugikorra.
- CROSSCALLEk edo haren filialek edo banatzaileak baimendu gabeko pertsonak egindako edozein aldaketa edo konponketa;
- Bezeroak USB atakaren edo audioaren estalkiak gaizki sartzearatik eragindako oxidazioa, estalki horiek ezinbestekoak baitira produktuaren estankotasuna bermatzeko.

Saldu osteko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, jarraibide hauei jarraitzea gomendatzen dizugu:

- Kargatu osorik bateria,
- Eguneratu softwarea edo berrezarri fabrikako konfigurazioa telefonoa formateatzeko (konfigurazio lehenetsia berrezartzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko eta bolumena igotzeko botoiak).

ABISUA: Erabiltzailearen datu GUZTIAK (kontaktuak, argazkiak, mezuak, fitxategiak eta deskargatutako aplikazioak) behin betiko galduko dira. Horregatik, formateatu aurretik telefonoaren datuen segurtasun-kopia osoa egitea gomendatzen da.

Telefonoa normal erabiltzea eragozten duen zerbait hautemanenez gero, bidali gure saldu osteko zerbitzura. Telefonoa ez da konponduko ez ordeztuko, baldin eta serieko markak edo zenbakiak (IMEI) kenduta badaude edo aldatu badira, edo erosketa-faktura aurkezten ez bada edo faktura ezin bada irakurri. Adostasunik eza berresten bada, telefono osoa edo haren zati bat ordeztu edo konponduko da. Berme honek piezak eta eskulanaren kostuak estaltzen ditu.

Telefonoa saldu osteko zerbitzura bidali aurretik, hau gomendatzen dizugu:

- Idatzi eta gorde IMEla leku seguru batean (*),
- Atera SD eta SIM txartelak.
- Gorde zure datu pertsonal guztiak. Gerta liteke gure konponketa-zentroak zure telefonoa formateatu behar izatea.
(*) IMEI kodea gailuaren serie-zenbakia da, eta hura identifikatzeko eta saldu osteko segimendua egiteko erabiltzen da. Modu bat baino gehiago daude IMEI-kodea jakiteko:
- *#06# markatzea telefono mugikorraren teklatuan.
- Telefonoaren kaxa kontsultatzea.
- Telefonoaren atzeko aldean (modeloaren arabera) IMEla etiketan ager daiteke, edo telefonoaren barrualdean, bateriaren azpian (atera badaiteke).
- Jack konektorearen estalkiaren azpian dagoen QR kodea eskaneatzea.

Gure saldu osteko zerbitzura bidaltzean telefonoarekin batera erantsi behar diren dokumentuak eta informazioa:

- Fakturaren kopia, erosketa-data, produktu-mota eta banatzailearen izena a.
- Telefonoaren IMEI zenbakia,
- Telefonoaren matxuraren deskribapena

Irakurri zerbitzuaren ezaugarri eta baldintza orokorrak Crosscall-en webgunean: www.crosscall.com



CROSSCALL™

OUTDOOR MOBILE TECHNOLOGY